

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Xabier Kintana*

*Bilbo, Bizkaia  
(1946)*

Aurkibidea

**Biografia**



# Zintak

## BIL-010

- **Proiektua:** Bittor Kapanaga, Otxandioko aztia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin - Mendibil, Gontzal
- **Data:** 2013-11-30
- **Iraupena:** 16 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

## Pasarteak

### 1. Frankismo gorrian lur harritsuari aitzurra sartzera ausartu zen gizona

- **Erref:** BIL-010/001
- **Iraupena:** 0:03:48. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:03:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
- Euskara
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

#### Laburpena:

<p>Gaztaroko kontuak gogoratzerakoan, gazi-gozoak etortzen dira. Francoren errepresioa, esaterako. Zaila zen orduan euskararen alde jardutea. Horregatik eskergarriagoak dira lur harritsu hartan aitzurra sartzera ausartu zirenak. Euskara eta Euskal Herriari buruz ez zegoen informaziorik. Eta norberak formatu behar zuen bere burua. Irakurtzen ziren liburu batzuk serioak ziren eta beste batzuk fantasiatsuak, baina horiek ere laguntzen zioten gure nortasunari eusten. Eta Otxandio bezalako herri txiki batean Bittor bezalako pertsona bat izatea harrigarria zen. Testuinguru horretan epaitu behar da haren lana.</p>

### 2. Errespetu eta maitasun guztia zor diogu Bittorri

- **Erref:** BIL-010/002
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:03:48. **Bukatu:** 00:06:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzeta eta soroa
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

**Laburpena:**

Hizlari ona eta atsegina zen. Ekologiaz mintzatzen ez zen garaian, sentiberatasun handia zuen animaliekiko eta landareekiko. Baditu bere lorategian Bittorrek emandako loreak. Asko ikasten zuen berarekin euskarari edo literaturari buruz. Haren etimologiak kasu batzuetan fantasiak ziren, baina politak. Peru Abarkako maisua bezalakoak behar genituen, bestelakorik ez genuelako. Eta ikuspegi horretatik epaitu behar dela uste du Xabierrek. Gaur egunean badugu jende prestatuagoa unibertsitateetan eta. Baina ez du uste jende horrek eskubiderik duenik Bittorren lana gutxiesteko. Errespetu eta maitasun guztia zor diogu Bittorri.

**3. Euskara batua bai, baina euskalkiak gordeta eta patxadaz**

- **Erref:** BIL-010/004
- **Iraupena:** 0:03:22. **Hasi:** 00:06:24. **Bukatu:** 00:09:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

**Laburpena:**

Funtsezko gauzetan bat etortzen ziren. Euskara batuaren alde zegoen; hori bai, euskalkien aberastasuna galdu gabe. Bazituzten gauza batzuetan diferentziatxoak, baina ez inportanteak. Gauzak patxadaz eta poliki egin behar zirela azpimarratzen zuen. Basarri bertsolariaren kasua: euskara batuaren aurkakoa zen, baina bere bertsoak eta prosa ikusita, oso hurbil zegoen batutik.

**4. Gauzak erdizka esaten zituen**

- **Erref:** BIL-010/005
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:09:46. **Bukatu:** 00:11:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

**Laburpena:**

Anekdotak: "Ikusten dozu Xabier: etxe horretan andreak agintzen dau". Berarekin paseatzen asko ikasten zen herri-jakintzaz. Beste gauza bat: gauzak ez zituen osorik esaten, beti erdizka. Eta horrela pentsatzera bultzatzen zuen norbera.

**5. Lan positiboa eta eskergarria egin zuen Bittorrek**

- **Erref:** BIL-010/006
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:11:48. **Bukatu:** 00:13:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

**Laburpena:**

Batzuetan etimologia fantasiatsuak-eta bazituen, baina horregatik ezin da kritikatu. Denok dugu hanka sartzeko eskubidea. Kritikatzten dutenek galdetu beharko lukete ea Bittorren adineko zenbatek egin zuen garai hartan hark beste lan; eta ez da konparagarria karrerak egiteko aukera izan zuten maisu handiekin. Lan positiboa eta eskergarria egin zuen Bittorrek.

**6. Euskaltzaleak naturazale izateko joera**

- **Erref:** BIL-010/007
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:13:18. **Bukatu:** 00:16:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzeta eta soroa
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

**Laburpena:**

Euskaltzaleok badugu naturazale izateko joera. Zergatik? Batzuen arduragabekeriagatik edo diruzalekeriagatik galtzeko arriskuan daudelako bai bata eta bai bestea. Bittorrentzat baziren balio batzuk diruz erosten ez direnak.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.  
*2025-12-16*

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**  
Badihardugu Euskara Elkartea  
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar  
943121775 - ahotsak@ahotsak.com